

# XEDAPEN OROKORRAK

## EKONOMIAREN GARAPEN ETA LEHIAKORTASUN SAILA

### 4473

*HUTSEN ZUZENKETA, honako dekretu honena: 125/2016 Dekretua, irailaren 6koa, gasa hartzeko instalazioak ikuskatzea eta berrikustea arautzen duena.*

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria arautzen duen abenduaren 23ko 217/2008 Dekretuak 18.2.b) artikuluan xedatzen duenez, argitaratzeko bidalitako testuan egindako hutsak edo omisioak Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako Zuzendaritzak zuzenduko ditu, baldin eta nabarmenak badira, dokumentuen esanahia aldatzen ez badute, eta nahasbiderik ez sortzeko komeni bada. Zuzenketa egiteko eskaria testua argitaratzeko agindua eman duen organoak egingo du.

Horrelako akatsak aurkitu ditugu gasa hartzeko instalazioak ikuskatzea eta berrikustea arautzen duen irailaren 6ko 125/2016 Dekretuan (2016ko irailaren 13ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, 174. zk.). Hori dela eta, honako zuzenketa hau egiten dugu:

2016/3898 (23/14) orrialdean, II. eranskinean, B.1.2 atalean, n) letraren ondoren,

Honela dio:

«●».

Eta honela esan behar du:

«o».

2016/3898 (23/15) orrialdean, II. eranskinean, B.2.2 atalean, n) letraren ondoren,

Honela dio:

«●».

Eta honela esan behar du:

«o».

2016/3898 (23/15) orrialdean, II. eranskinean, C atalean, azken paragrafoan,

Honela dio:

«...betiere eranskin honen B atalaren 1.2.a zenbakiarekin bat etorritz...».

Eta honela esan behar du:

«...betiere eranskin honen B atalaren 1.2.a eta 2.2.a zenbakiarekin bat etorritz...».

– 2016/3898 (23/17) orrialdean, III. eranskinean, Banakako gas instalazioen akatsen zerrendan, akatsen 1.1 eta 1.3 ilaren artean, 1.2 ilara sartu behar da; hona hemen edukia:

1.2.	Kanpoalderako gas-ihesa, arriskurik gabea (GLPan izan ezik)	Fuga de gas al exterior sin riesgo (excepto en GLP)		X
------	---	---	--	---